



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresarentzat, bezeroen ongizatea gainerako guztiaren gainera dago, hau da, argi dago bezeroak gure enpresaren oinarria izango direla, enpresa elikatuko dute eta. Hori dela eta, haiengan pentsatzen dugu uneoro eta haien zalantzak argitzeaz eta ahalik eta zerbitzurik onena eta eraginkorrena eskaintzeaz arduratzen gara. Bezeroekin ezarri nahi dugun harremana konfiantzan eta gertutasunan oinarritzea nahi dugu. Hori zerbitzu automatizatuen bidez lortu nahi dugu, gure enpresa eta haien produktuak erraztasunez eskuratzea oso garrantzitsua iruditzen zaigulako.

Lehenik eta behin, gure produktuen berri emateko ditugun bezero oheei eta bezero berriei, sare sozialetaz baliatuko gara. Izan ere, gaur egun informazioa jendeari iristeko modu erraz, efektibo eta komodoa da. Gainera, edozeinen esku dagoen plataforma da eta eguneratua eduki dezakegu. Hainbat sare sozialetan edukiko dugu kontua; batik bat, instagramen, facebooken, twitterren eta tiktoken. Ahalik eta pertsona gehienetara iristeko @fsuofiziala kontuan publikatuko da informazioa. Hala, jendeak gure berri izango du egunerokotasunena. Guri buruz jakiteko beste bide bat gure webgunea izango da: www.fsu.net. Horrenbestez, gurekin kontaktuan jartzeko bi bide edukiko ditugu: fsu@gmail.com edota 622 33 44 55.

Bestalde, gure bezeroak gure produktuak erosteko prest eta seguru egon daitezten, gure erosle guztiei deskontuak eskainiko dizkiegu zenbait hilabetero, adinari, enpresaren tamainari eta prezioari mugarik jarri gabe. Horrela, gure ohiko bezeroei eustea lortuko dugu eta, gainera, berriak erakartzea. Ondorioz, gure erosketak igo egingo dira eta horrela gure diru sarrerak igoko dira, gure enpresak duen oinarritzko helburua lortuz.

Azkenik, aurretik aipatutako sare sozialen bidez hainbat zozketa antolatzeko asmoa dugu; izan ere, bezeroek gertutasuna sentituko dute gurekiko. Edozeinek, bezeroa izan edo ez, zozketa hortan parte hartzeko aukera izango luke, eta deskontuek bezala, asko lagunduko liguke enpresa-bezero erlazioan. Zozketa horiei eta haien



aukera irekiei esker, bezero berriak erakarriko genituzke. Era berean, jada ditugun bezeroei haien leialtasuna eskertzeko modu bat izango litzake; izan ere, zozketan parte hartzea doakoa izango litzake.

Horrekin guztiarekin, informazioa gure bezeroek egunero eskuratuko lukete. Proposatutako zozketetan parte hartzeko eta deskontuak jasotzeko aukera izango lukete. Gure enpresak pixkanaka bezero gehiago izango lituzke guk eskainitako bideei esker.